

Hiru bidaiia euskarara

Korrika 16k omenaldi ekitaldian dokumental hunkigarria eskaini zuen. Aljeriako Ramik, Baionako Mixelek, Gasteizko Jesus Marik eta Galiziako Tereixak euskararekin izandako harremana kontatzen dute. Ondorengo orrietan Mixele Aguerre elkarizketatu dugu, eta baita Enrike Díaz de Durana eta Jose Perez ere, euskara ikasteko ahaleginean ari direnak azken biak.

ONINTZA IRURETA

HALA DIO Korrika 16ren leloak: *Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!* Euskal Herrira etorri, euskara ikasi eta transmititu dutenei eskerrak eman nahi dizkie aurtengo Korrikak. Bate-tik, eskerrak eman egindako ekarpe-nagatik, eta bestetik, hona etorri eta euskara ikasi duten horien konpromi-soa agerian jarri nahi izan dute orain-dik ikasi ez dutenak anima daitezen. Bestalde, Korrikak ez ditu ahaztu nahi izan txikitan euskara galdu zute-nak, ondoren ikasi eta euren seme-alabei erakutsi dietenak.

Haurra zela euskara galdu zuene-takoa da Baionako Mixele Aguerre.

Gero hasi zen poliki-poliki berres-kuratzen eta orain AEK-ko langile eta eskolako irakasle da. Korrikak, Orio Produkzioak ekoiztetxearekin batera, prestatu duen dokumentale-ko protagonistetako bat da Mixele Aguerre. *Bidaia intimoak* dokumen-tal horretan lau lagunek euskarare-kin izan duten esperientzia konta-tzen dute. Aljeriako ber-berea den Rami da bideoko beste protagonis-ta. Goizueta baten bidez Paristik Goizueta lur hartu zuena. Bertan bizi da, euskaraz. Tereixa Galiziatik etorri zen Bilbora. Ikastoletan ira-kasleak behar zituztela eta euskara

ikasten hasi zen. Orain Asti Leku ikastolako irakasle da. Jesus Mari ermuarrak ere bere lekukotasuna azaldu du bideoan. Ermutik Gastei-za joan zen bizitzera eta euskara galdu. Urteak pasa ahala berresku-ratu du.

Lau horiexek aurtan Korrika 16k protagonista egin dituenak, *Bidaia intimoak* bideo dokumentalaren bidez.

Laster iritsiko zaie lauri korrika egiteko garaia. Tuteratik abiatu eta Gasteiza iritsiko da Korrika, mar-txoaren 26an hasi eta apirilaren 5ean bukatzeko. ■

Korrika 15eko argazkia da behekoa. Aurtan, Tuteran, martxoaren 26an hasiko da eta Gasteizen bukatu apirilaren 5ean.



Mixele Aguerre

«Beti ukan dut gogoa besteei euskara irakasteko»

Guraso itsasuiarrak ditu eta bera Baionan jaioa da. Etxean ikasi zuen euskara eta eskolan galdu. Alabaina, Baionako karriketan, lanean, lagunekin euskaraz bizi da orain.

KRISTINA ENCINAR

Nolako harrera ukan du *Bidaia intimoak* filmak?

Filma pasatu eta gero nik entzun dudana izan da anitzek nire egoera bizi izan dutela: txikitan euskara genekien, gero eskolan frantsesez egin eta euskara galdu. Garai horretan familietan ez zuten kasu eman lanjer horretan. Beraz, filman ikusten ahal da berreskuratzen ahal dela euskara.

Noiz piztu zitzaizun euskara berreskuratzearen nahia?

Hiru urterekin eskola publikora joan nintzen —nire garaian ez zen elebidun—. Amatzik eta euskara bazekiten, eta nire aitak nahi zuen euskaraz ikas nezan, horregatik, eskola egin eta Kanboko kolegioan, astean oren bat ematen genuen euskaraz. Bertan, hilabeteen euskarazko izenak, urtaroak, eta antzeko gauzak ikusten genituen, baina ez genuen komunikatzen ikasten. Hala ere, talde on bat egin genuen hor, eta horrela, euskal mundua ezagutu genuen. Lagun bat egin nuen, berarekin segitu nuen beti euskaraz, baita Baionako lizeo garaian ere. Berarekin poliki-poliki euskaraz komunikatzen trebatzen nintzen, naturalki, lagun hori beti han baitzen, euskaraz mintzatzeko. Une horietan gogoa etorri zitzaidan euskara sakonago bizitzeko. Gerora, euskara irakasle bilakatu naiz, beti ukan baitut kuriositatea eta gogoa euskara besteei ere irakasteko.



GAIZKA IROZ

Ikasle garaian trukea eginda Leitzan izan zen. Harritu zen karrikan adin guztietakoak beti euskaraz entzuten zituelako. Beste hainbeste egin zezakeela pentsatu zuen.

Lanean ez ezik, eguneroko bizitzan ere euskaraz ari zara.

Ene amatzik bazekien, eta haren etxera joaten ginelarik beti egiten genuen euskaraz. Beti atxiki dut euskararen ulermena, nahiz eta banituen zailtasun batzuk hitz egiteko. Ene amarekin segitu dut frantsesez, gaur arraroa egiten zait ene amarekin euskaraz egitea, ez da naturala. Aldiz, nire haurrekin ez zait naturala egiten frantsesez egitea, euskaraz ari naiz. Lanean osoki euskaraz ari naiz, eta lagun askorekin ere bai. Baditut lagun batzuk nire egoera berdinean izanikoak, euskara konprenitzen dutenak baina hizkuntza berreskuratu ez dutenak. Gure artean euskaraz eta frantsesez erdi-erdi aritzen gara,

baina egia da batzuetan batengatik frantsesera aldatzen garela.

**“Euskaraz bizi nahi dugunon herri-
ra”-k zer diotsu?**

Euskaraz entzuten duzularik eza gutzen ez duzun tokian zerbait pizten da, zerbait sortzen zaizu, eta hori magikoa da. Bizipen hori irekitzen ahal da ez bakarrik hemengo jendea, baizik eta kanpoko jendea ere bai, euskara ezagutu behar da sentipen horiek bizitzeko. Denek bizi ahal dute esperientzia hori euskara jakinez gero, denei irekia da. Euskaraz ikasten baduzu, euskaraz egiten baduzu euskaraz itzultzen dizu zerbait, gauza hori, bizitzen eta arnasten duzun gauza hori. Ongi etorri hori bizi nahi duten guziet, nahi baduzu.

Euskara berreskuratzearen bide horretan baduzu anekdotarik?

Kolegioan nintzelarik talde bikain horretan, trukea egin genuen Leitzako ikasle batzuekin. Hara iritsi ginenean, ikustea mundu hori, guk hemen ezagutzen ez genuena, hau da, karrikan jendeak, gazteak, zaharrak, denbora guztian euskaraz... ni harriturik nintzen! Hartan ez nuen halakorik ezagutzen, eta anitz markatu ninduen, biziki oroitzen naiz. Pentsatu genuen guk ere berdinean egin beharko genukeela, eta horrela ere euskaraz egitera animatu ginen. Izan ere, euskara berreskuratzea ez da aski, praktikatu ere egin behar da. ■

Jose Pérez Maroto

«Euskara helduaroan ikastea oso zaila dela gezur handia da»

Hirugarren urtez ari da Jose Pérez, 32 urteko getxoztarra, AEKren Leioako euskaltegian. Kostatu egiten zaio, baina elkarriketa osoa euskaraz egin dugu, horretan temoso agertu da. Zailtasunak zailtasun, etorkizunean euskaraz bizitzeko oinarriak jartzen dihardu Pérezek, inguru erdaldunean bizitzeak asmo hori zailduko diola jakin arren.

UNAI BREA

la 30 urterekin hasi zinen euskaltegi honetan. Ordurako baze-nekien euskaraz zerbait?

Eskola publikoan ibilitakoa naiz, A eredu. Astean hiru orduz ikasten genuen euskara, eta ez zen nahikoa. Gero, 16 urterekin, lanean hasi nintzen. Euskaltegian hasi nintzen orain dela hamabi urte, HABEN, baina ez zitzaidan gustatzen nola ematen ziren eskolak, ariketak eta ariketak egitea zen. Ez zegoen beste ekintza motarik. Eta ez nuen lehenengo ikasturtea amaitu, baina ez arrazoi horregatik.

Berriro saiatzen ari zara hala ere. Zergatik euskara ikasi?

Lehenengo eta behin, gustatu egiten zaidalako euskara. Eta gero, ez dakit, neure burua aberasteko, janzteko. Koadrilako lagunak ikastolara joan dira eta euskaraz egiten dute; askotan egoten naiz haiekin, guztiak euskaraz hitz egiten, eta ni zer? Orain behintzat dakidana erabiltzen dut beraiekin nagoenean, lehen ez nuen ezer ulertzen. Nire bizitzan une inportante bat egon zen alde horretatik: lagun batekin joan nintzen mendira, frantses batekin egin genuen topo eta nire laguna harekin hasi zen ingelesez, baina nik ez nekien, eta pentsatu nuen: "Gaztea naiz, zergatik ez dut ikasi hizkuntza bat?". Lehenengo, noski, nire herriko hizkuntza da ikasi behar dudana,

eta gero besteak, ingelesa edo dena delakoa.

Bitxia da zure lagun taldean euskaraz aritzea denak. Eskualde honetan, ikastolan ibilia izanagatik ere, euskara gutxi erabiltzen da.

Bai baina... Nire lagun batek bereziki, ahal duela, euskaraz baino ez du hitz egiten edozein egoeratan. Primeran iruditzen zait.

Hasierako urratsetan zaude, baina euskalduntze prozesua azkenera arte eramateko determinazioa igartzen dizut...

Bai, bai, bai. Lehenengo ikasturtea amaitu eta gero errepikatu egin genuen batzuek. Nik esan nuen: berriz egingo dut ikasturte guztia, ondo ikasteko. Euskaraz ikasi nahi dut, erabaki tinkoa daukat hartuta.

Oraindik kostatzen zaizu euskaraz jardutea, baina ikasi duzun hori erabiltzen duzu?

Lagunekin bai. Eta erosketak egitean gauza batzuk euskaraz eskatzen ditut. Hara, dendari euskaldun gutxi dago Leioan, zaila da hemen edonon lehenengo hitza euskaraz egitea, nik agurtu beti euskaraz, gero askotan erdarara aldatzen gara, ama hizkuntzara. Gainera lotsatu egiten naiz, iruditzen zait nire euskara beste jendea iri txarra irudituko zaiola. Lagunekin ez, haiek zuzendu egiten naute eta gustura, baina ezezagunen artean...

Eta ondo ikasitakoan? Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Badakit inguru erdalduna dela hau, eta pentsatzen dut horretara datorrela zure galdera. Nire etorkizuna euskaldun modura? Uste dut gero eta gehiago egingo dudala, eta gero eta hobeto. Lagunak euskaldunak dira, lankide batzuk ere bai... Uste dut nire bizitzaren zati handi bat euskaraz egin ahal izango dudala.

Euskara helduaroan ikastea zailegia dela diote batzuek...

Ez zait hala iruditzen. Hiztegia erraza da, beste gauza batzuk ez hainbeste.... Nire oztopo handiena aditza da, esaterako. Baina euskara helduaroan ikastea oso zaila dela gezur handia da. ■



Enrike Díaz de Durana


«Pazientzia handia behar du nirekin euskaraz hitz egin nahi duenak»

Euskaraz komunikatu ezinik ez dugu gure oftalmologoarekin. Guk, euskaraz berari. Berak, gaztelaniaz errazago. Euskaldun berri gordina da Enrike Díaz de Durana arabarra.

MIEL A. ELUSTONDO

Barakaldokoa naiz eta / daukat paro obrero / horregatik euskaltegia / noa ni egunero... Enrike Díaz de Duranaren kasuak badu hari bat, euskaltegia eraman zuena. “Zumarragako ospitalean ari nintzen lanean garai hartan, 1999 inguruan. Oftalmologoa naiz, lanbidez. Kontsultan lanean eta ez nuen inorekin harremanetan sartzeko arazorik, baina gaixoarekin nuen komunikazioa ez zen nik nahi bezain erraza. Adibidez esango dizut: agurtzerakoan, bai sartzerakoan eta bai irteterakoan, gaixoez erizain euskaldunari esaten zioten agur, ez niri. Oso egoera xelebrea iruditzen zitzaidan. Ni gasteiztarra naiz eta euskara ez zegoen nire bizitzan, baina Zumarragan bizi nuen egoerak euskaltegia zuzendu ninduen”.

Goizean goiz hasi behar dut / motibazio bila / euskara ez da ingelesa / baina ez dago hila... Zumarragako lan egoera ez ezik, besterik ere erabili zuen gasteiztarrek euskara ikasten hasteko. “Oposizioak ere izatekoak ziren eta jakina zen euskara baloratuko zutela. Eta, orduantxe, euskaltegia. Ordu arte, beti lanean, ez nuen astirik euskarari bi ordu eskaintzeko. Arratsaldeko hiruretan bukatzen nuen lana Zumarragan. Bada, mokadua egin, edo mokadua egin gabe askotan, autoa hartu eta Bilbora joaten nintzen, han bizi bainintzen, eta Juan Mateo Zabala euskaltegia joaten nintzen. Ordu laurden bat berandu, beti”.



ZALDI ERO

“Gaixoez erizain euskaldunari esaten zioten agur, ez niri”.

Egun askotan pentsatzen dut / hau dela inutela... “Alde batetik, ondo euskaltegian, baina gelan denbora asko galtzen genuela iruditzen zitzaidan. Etxean ikasten ohituta nago, eta ez eskolan hainbeste ariketa egiten. Ikasturte bat egin nuen. Zumarragatik Bilbora egunero, autoan, ziztuan... oso handia zen arriskua”.

Lau gauzak izen bat dute eta / gauza batek lau izen... “Ez naiz baldarra hizkuntzak ikasten, arazorik ez dut inoiz izan frantsesa ikasten, ezta ingelesa ikasten ere. Aldiz, oso zaila iruditu zait euskara. Alderantziz hitz egin beharra! Hitzen bukaeran egoitea giltza, esaldiak atzekoz aurrera antolatu beharra... zaila. Uste dut zaila dela lan egin eta euskara ikastea, oso zaila”.

Kokoteraino nago / klaseak aditzen / pegatak ipintzen / ta dirua biltzen / nola sartu nintzen / ez dut konprenitzen / lan

on bat bilatzeko / ez badu serbitzen. “Gaur egun euskara ulertzeko gai naiz. Lagunarteko elkarrizketa bat, adibidez, ulertuko dut euskaldun berrien artekoa baldin bada, edo ETBkoa bezalakoa baldin bada. Gaur egun... Galdakaoko ospitalean lan egin dut duela sei hilabete arte eta Gasteizko Txagorritxun ari naiz orain. Han, euskaldunak ziren gaixoez etako asko –Gernika, Markina, Durango eta besteak–, baina medikuarekin gaztelaniaz egiteko ohitura barneratua dute. Dena dela, euskaraz agurtzen nindutenean era berean agurtzen nituen nik, baina euskaraz segitzen bazuten, ezin izaten nien ulertu. Bermeokoak eta! Nik ezin ulertu! Gasteizko Txagorritxun, berriz, ez dut ia euskararik entzuten... Euskarazko harremanik ez dut lanean. Horrainsa heldu naiz... Gaur gaurkoz ez dut gehiago saiatzeko asmorik, hamaika eginkizun ditut. Dakidana erabiltzen saiatzen naiz, baina kosta egiten zait, asko: lotsa ematen dit, okerra besterik ez dut egiten hitz egiterakoan, jabetzen naiz horretaz eta ez dut batere ondo erabiltzen. Denbora behar izaten dut esaldiak osatzen, pazientzia handia behar du nirekin euskaraz hitz egin nahi duenak: nekagarria naiz!”.

Enrike Díaz de Durana Santa Coloma, ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira! ■

Babeslea: Zumaia Euskara Zerbitzua



Zumaia Udalak
www.zumaia.net

Zumaian eta Euskal Herrian

euskaraz txanpan

Foruen enparantza, 1
20750 ZUMAIA
Tel.: 943865025
Faxa: 943862456

euskara@zumaiaoudala.net
euskaratxanpan@zumaiaoudala.net